



ERREGIMEN EKONOMIKOA

Araudia

Eusko Legebiltzarraren erregelamendua

12. artikulua

1. Legebiltzarkideek diru kopuru bat jasoko dute, beren eginkizuna era- ginkortasunez eta duintasunez bete ahal izateko.
2. Eskubidea izango dute orobat beren eginkizuna betetzeko ezinbeste- koak diren laguntzak, frankiziak eta gastuen ordainak jasotzeko, bai eta lege- gintzaldiaren amaierakoak ere.
3. Halaber, kalte-ordain bat jasoko dute karguari uko egin eta hura uztea- gatik, hileko ordainsari baten kopurukoa, behin bakarrik eta betiere karguan gutxienez urtebetean aritu badira, salbu eta hilabete baino gutxiagoko epean ordainsari publiko bat jasotzen hasten badira.
4. Legebiltzarkideek jasotzen dituzten ordainsari guztiak izaera orokorre- ko zerga-arauei lotuta egongo dira.

13. artikulua

1. Legebiltzarkideek, legebiltzar-lanetan aritu ahal izateko, Gizarte Segur- rantzan kidezeko edo mutualitate baten bazkide izateko zio zuten lana utzi baldin badute, Legebiltzarraren aurrekontuaren gain ordainduko zaizkie kide- tze- edo bazkide-sariak.
2. Legebiltzarrak hitzarmenak egin ahal izango ditu Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileekin, aurreko paragrafoan zehaztutakoa betetzeko eta lehenagotik Gizarte Segurantzaren alta eman gabe dauden legebiltzarkideak, hala nahi izanez gero, dagokion erregimenean kidezeko.
3. Legebiltzar-lanetan aritu ahal izateko zerbitzu berezietan dauden fun- tzionario publikoen kasuan, klase pasiboen ordainkizunetara ere hedatuko da paragrafoan ezarritakoa.
4. Legebiltzarkideen Gizarte Segurantzako kotizazioak Gizarte Seguran- tzaren arloko legeria orokorrari lotuta egongo dira, eta orobat Legebiltzarrak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekin sinatutako hitzarmen bere- ziarri. Babestuko diren kontingentziak arau horietan zehaztutakoak izango dira.





Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren erreformaren bidez (ELAO 162/2012.04.27), 3. paragrafo berria sortzen da Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 12. artikuluan, eta 4. paragrafoa, 13. artikuluan. Erreformak, halaber, bi xedapen iragankor ditu:

Lehenengoa

Gizarte Segurantzako legeria orokorrak legebiltzarkideen langabezia-prestazioa estaltzea aurreikusten ez duen bitartean, karguari uko egiten diotenean edo agintaldia bukatzen zaie-nean aldi baterako prestazio ekonomiko bat jasoko dute legebiltzarkideek, beren oinarrizko soldataren hileko ordainsari baten % 40ko kopurukoa.

Bigarrena

Prestazio hori hilero ordainduko da, eta hiru hilabeteko iraupena edukiko du agintaldi parlamentarioan aritutako urte bakoitzeko edo sei hilabete baino gehiagoko urte-zati bakoitzeko, eta gutxienez hiru hilabete eta gehienez hamabi hilabete ordainduko dira.

